

Lea-Artibaiko

XIV. Enpresa proiektu

lehiaketa

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Colaborador:

Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentzia Lea-Artibai eskualdearen garapenarekin konprometituriko erakundeak dira, eta enpresa berrien sorrera beraien misioaren parte da. Ekintzailtza kultura hedatzeko asmoz, **Lea-Artibaiko XIV. Enpresa Proiektu Lehiaketa** abian jarri dute bi erakundeek.

1.- HELBURUAK

- Pertsona ekintzaileak antzematea
- Ekintzailtza kultura hedatzea
- Lea-Artibai eskualdean lanpostu berrien sorrera bultzatzea
- Kooperatiba eredu bultzatzea

2.- NORI ZUZENDUTA

2019 urteaz geroztik Lea-Artibai eskualdean enpresa berri bat martxan jarri edo 2020an martxan jartzeko asmoa duten ekintzaileei zuzenduta dago. Enpresa proiektu kooperatiboetarako dagokionez, Lea-Artibai eskualdean kokaturikoen gain, Busturialdea, Durangaldea eta Debarbarrean kokaturikoak ere aurkeztu ahalko dira.

3.- MODALITATEAK

3 modalitate ezberdinduko dira:

- 1).- Negozio ideia berritzaileak
- 2).- Merkataritza, ostalaritza, turismo eta zerbitzu enpresak
- 3).- Kooperatiba izaera juridikoa duten enpresak (bere jarduera edozein izanik).

4.- SARIAK

Ondorengoak izango dira sariak:

- ✓ Modalitate bakoitzarentzat, enpresa proiektua martxan jarri eta garatzeko laguntza ekonomikoa:
 - 1 modalitatea: 2.000 €
 - 2 modalitatea: 1.500 €
 - 3 modalitatea: 2.000€

Oharra: sariak beraien artean ez dira bateragarriak izango. Eta 3. modalitatearen kasuan, proiektuak aurretik Kooperatiben Mahaiaren laguntza jaso badu, ez da bateragarria izango.

- ✓ Erakunde antolatzaileek kudeatzen dituzten programa ezberdinetan parte hartzeko aukera.
- ✓ Lea-Artibai Berrikuntza Gunea eraikineko enpresa haztegia kokatzeko erraztasunak.
- ✓ Enpresa martxan jarri arte eta ondorengo urteetan aholkularitza eta laguntza erakunde antolatzaileen eskutik.

Oharra: Epaimahaiak parte-hartzaileei deitzea posible izango da beraien proiektuak defenda ditzaten. Aurkeztutako egitasmoen maila baxuegia dela erabakiz gero, sariak ezerezean geratu daitezke.

Saria proiektuan izandako gastuaren justifikazioa egin ostean ordainduko da.

Herritarrek ere sare sozialen bidez lehiaketara aurkeztutako proiektuak (argazkiak) bozkatzeko aukera izango dute eta beraien arten "Hamen Bertokoa"-ren otzara bat zozketatuko da.

5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzio fitxa (Proiektua Azaro Fundazioa edo Leartibai Garapen Agentziarekin landu dutenek ez dute fitxa hori bete beharrik izango)
- Jardueraren identifikazio-argazki bat bidaltzea whatsapp bidez 946833495 zenbakira deskribapen txiki batekin (esaldi bat), gero jendeak sare sozialetan bozka dezan.
- Enpresa sortuta dagoen kasuan: Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta eman izanaren kopia (IAE), Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagiria eta bideragarritasun plana.
- Ideiaren balorazioan lagungarri izan daitekeena edozein dokumentu edo/eta bideragarritasun plana.

6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Bideragarria izatea (teknikoki, ekonomikoki eta merkatura begira)
- Izaera berritzailea, balio erantsia eskaintzea edo/eta originaltasuna
- Sortuko dituen enplegu kopurua eta lanpostu horien kalitatea
- Ekintzaile taldearen profila
- Negozio ideiak Lea-Artibai eskualdean izan dezakeen koherentzia
- Ideiaren garapen maila

- Jarduera garatzeko teknologia berriak erabiltzea
- Ekonomia jasangarriarekin izan dezakeen lotura
- Gizarte ekonomiako eredu juridikoa izatea
- Herritarren bozketan argazkiak lortutako puntuazioa

Oharra: irizpide bakoitzak %10eko balio izango du.

7.- EPEAK

- Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2020/03/31
- Herritarrek argazkiak bozkatzeko epeak: 2020/04/06tik-2020/04/26ra
- Sari banaketa: 2020/05/07, **Ekintzaile Egunean, Markina-Xemeinen**

8.- INFORMAZIO ZABALAGOA ETA INSKRIPZIO ORRIA

www.azarofundazioa.com

www.leartribai.com

azaro@azarofundazioa.com

ekintzailletza@leartribai.com

94 616 91 72

94 616 90 88

BULEGOA:

MARKINA-XEMEIN: Lea-Artibai Berrikuntza Gunea

Xemein Etorbidea, 12-A

ONDARROA: Leartibai Garapen Agentzia, Kanttoipe 3 behea

LEKEITIO: Leartibai Garapen Agentzia, Sabino Arana 14 behea